

# **IPUINEN FUNTZIO PEDAGOGIKOA: balioak transmititzeko eta harremanak lantzeko**



**Eider Goiburu  
Andrea Sanz  
Oihane Ugarteburu  
Garazi Urdangarin**

## IPUINEN DEFINIZIOA

Prosan idatzitako fikziozko [narrazio-lan](#) laburra, [bereziki alegiazko](#) gertaerak kontatzen dituena eta umeei zuzendutakoa dena; [direlako](#) lanez osatutako literatur generoa. Fikziozko gertaerak kontatzen ditu eta helburu nagusia entretenitzea, jostatzea eta moralizatzea dira besteak beste.

Betiko ipuinak herrialde eta garai primitiboetan koka daitezke, ahoz aho kontatzen zirelarik. Geroago, errekopilazio forman zabaltzen joan ziren.

Antzina, herrietako haur eta helduak talde txikitan biltzen ziren ipuin kontalarien ipuinak entzuteko. Gainera lehenengo ipuinek ez zuten amaiera zoriontsurik izaten gaur egun gertatzen den bezala. Historian zehar bukaera hauek aldatuz joan dira, gauzak ulertzen hasten ari den haurrentzat hain arrotzak ez izateko.

## HISTORIA

Literaturaren historian, edozein historiatan bezala, elementu ugari hartzen dute parte: ekonomiak, gizarte aldaketek, politikak, asmakuntzek, aurrerapen teknologikoek... horiek guztiek izan dute eragina haur literaturaren garapenean.

Literaturaren historian asmakuntzaren batek garrantzi berezia izan baldin badu, hori 1455ean Gutenbergek asmatutako inprenta izango litzateke. Asmakizun horrek literaturaren esparrua zabaltzen zuen, bai irakurle aldetik bai argitaratzen ziren liburuen aldetik, iraultza sorraraziz letren munduan. Ordura arte, ahozko tradizioetik jasotako lanak eta monasterioetan kopiatzen ziren liburuak (erlijiosoak) izaten ziren irakurgai bakarrak.

Dena dela, mende bi itxaron beharko dugu haurrentzako liburuak ikusi arte. 1641 eta 1645 bitartean argitaratu zen Massachussets-en lehenengo haur liburua Ameriketara: *Milk for babes*, “Esnea haurrentzat” eta bere egilea John Cotton izan zen. Hala ere, berrikuntza handiena 1658an Joham Amos Comenius predikari eta maisuak idatziriko *Orbis sensualium pictus* edo *Orbis Pictus* izenaz ezaguna den liburuarekin etorri zen. Irakaskuntza liburu bat zen, latina eta ama hizkuntza, biak batera, ikasteko metodoa. *Orbis Pictus* hori dugu haurrentzako lehen ilustrazio liburua.

Hasiera batean, haurrentzako liburuak helburu hezitzaile eta moralizatzaile argia du. 1668an Jean de La Fontaineren *Fables* argitaratu zen. Alegien jatorria ikertu nahi izanez gero, Babiloniara jo behar omen da eta handik India aldera, non garrantzi handia hartu baitzuen. Bertan argitaratu zen IV.mendean *Panchatantra* bilduma Daroucha erregearen seme-alabentzat.

Euskaraz haurrentzat eginiko lehenengo literatur liburua, Bizenta Modelen *Ipui Onac* alegi bilduma da.

XVII.mendearen bukaera aldera, 1697an, Charles Perraulten *Les Contes de Mere L'Oye* liburu ezaguna argitaratu zen. Garai horretan moda bitxi bat zabaldu zen aristokraten bileretan eta saloietan: maitagarrien ipuinen moda. Haurrentzako egokiak izan zitezkeen ipuinak ziren, baina baita amodio ezkutu edo intrigazko istorioak ere. Perraulten liburua ez zen haurrentzat bereziki eginiko lana, baina esan daiteke kontuan izan zituela egileak liburuak idazterakoan. Perraulten benetako meritua ahozko tradizioan zeuden kontu batzuk literatur tradizioa pasatzea izan zen.

Frantziaren botere politikoa letren arloan ere nabaria izan zen; La Fontaine eta Perraulten ondoren hirugarren izen bat dugu: Antoine Galland. Politikari eta orientalista frantses horrek arabiar herri tradizioko altxor handienetakoa ekarri zuen Europara: *Les Mille et Une Nuits (Mila gau eta bat gehiago)*.

XVIII. mendera arte haurra ez da inoiz presente egon idazlearen asmoan, Comeniusenean izan ezik; baina harena ikas liburua zen. Ez zegoen haurrik gizarte mailan, ez zen kontuan hartzen, eta alde horretatik ia ez zegoen haur libururik.

XVIII. mendearen erdialdean aldaketa nabarmena gertatu zen. 1690. urtean John Lockek *Thoughts Concerning Education* liburuan haurren heziketari buruzko gogoetak plazaratu zituen.

John Newberyek 1744tik aurrera haurrentzako liburuak argitaratzeari ekin zion. Zalantzarik gabe bera izan zen lehenengo haur liburu argitaratzailea.

Ipuina, gaur egun ezagun den bezala, XIX.mendean zehar lortu zuen heldutasuna, literatur aldizkarietan argitaratuak izan ondoren.

Ipuin literarioak, pertsona konkretu batek idatziak, berriagoak dira. Lehen idazleak Juan Manuel infantea (Lucanoreko kondea) eta Boccaccio (Decamerón) izan ziren. Literatur esparrutik ipuin moderno eta egunerokoetara salto eginez Poe, Manpassant eta Chéjov aurki ditzakegu.

## IPUINEN SAILKAPENA

- **Alegiak:** istorio moralak dira; entretenigarriak, baina irakaspenez hornituriko irakurgaiak.
- **Ipuin modernoak:**
  - Izaera errealista: soziala, psikologikoa, historiko edo kulturala.
  - Izaera fantastikoa: fikziozkoa, fantastikoa edo errealismo magikoa duena.

Bestalde, beste sailkapen bat ere aurki dezakegu:

- **Betiko ipuinak:** egilea ezezaguna izaten da, ahoz aho transmititzen da generazioz generazio.
- **Literatur-ipuinak edo artistikoak:** egile ezagunek idatzitakoak eta publikatutako liburuen bitartez transmititzen dira.

## IPUINEK BETETZEN DITUZTEN HELBURUAK

IPUINEN HELBURUAK	AZALPENA
Haurra jostarazi eta entretenitu	Haurren arreta pizten du, argumentuaren erraztasunagatik eta ekintzagatik
Giza gatazka basiko eta existentzialen ezagutza	Heriotza, zahartzaroa, txirotasuna, maitatua izateko beharra... honako gaiak lantzen dira: familia, harremanak, lana, erlijioa eta kultura.
Galdera filosofikoei erantzuna: esanahiak eskaintzen dituzte	Gurasoez gain ba al dago indar onberagorik? Edo, zerbait hobea existitzen al da?
Garapenaren prozesuan laguntza	Pertsonaiaren barne aldaketa lortutako zorientasuna baino

	<b>garrantzitsuagoa da.</b>
<b>Ikaskuntza</b>	<b>Ipuina literatura da. Irakurketa sustatzen du eta formakuntza kulturala aberasten du.</b>
<b>Irakurketaren potentziazioa</b>	<b>Irakurriz ikasten da irakurtzen.</b>

## LANTZEN DIREN GAIAK:

LANDUTAKO ARAZO NAGUSIAK	AZALPENA	ADIBIDEAK
Integrazioa	Izakeraren ezagupena, haurtzaroko prozesuak alde batera utzi eta heldutasuna lortzeko.	Hiru hizkuntzak (los tres lenguajes)
Banakoaren ezagutza eta norberaren bilaketa independentea	Integrazioaren ondorioz sortzea. Pertsonai desberdinekin topatzea inplikatzeko du. Esperientzia arraroak eta heroiaren bakarkako bidai tenporala.	Hiru lumak (las tres plumas)
Edipo konplexua	Haur eta gurasoen arteko harremanak: haurra bera bakarrik definitzen hasten da beste pertsona baten norgehiagokan.	Edurnezuri
Senitarteko lehia	Anai-arreben arteko zeloak.	Mari errauskin

<b>BESTE ARAZO BATZUK</b>	<b>AZALPENA</b>	<b>ADIBIDEAK</b>
Hautzaroa Nerabezaroa Helduaroa	Haurrak hobeto ulertzen du denboraren igarotzea etapa, sentimendu eta beldurren bidez.	Txanogorritxu (pubertaroa) eta Loti ederra (pubertaroa, nerabezaroa).
Abandonatua izatearen estutasuna	Hautzaroan antsietate handia. Bukaera alaiak bakarrik ez egotea suposatzen du.	Bikote ideala aurkitzea (Edurnezuri) edo etxera itzultzea (Hansel eta Gretel).
Paper baten bilaketa	Familian edo inguruan.	Urre kizkur (ricitos de oro).
Inozentziaren galera	Hobe da ona eta bizkorra izatea, guztiz inozentea baino.	Txanogorritxu.
Sexuari beldurra	Haurrentzako sexua tabua da, beldurgarria eta nahigabekoa.	Ederra eta piztia.
Gezuraren porrota	Gezurak gaizki bukatzen dira.	"Pere y el llop"
Harrotasunaren porrota	Luzatutako nartzisismoa, inbidia eta zeloak. Sentimendu onak dira zoriontasuna ematen dutenak.	"Erraldoiek haundiak izateagatik hiltzen dute".
Bakardadea eta afektu gabezia	Hautzaroko ohiko beldurra.	Mari errauskin.
Mespretxua eta axolagabetasuna	Eskoletan ohiko beldurra.	Ahatetxo itsusia.
Intzestua	Gurasoengandik haurrekiko ezkontza	Asto azala (piel de



	sentimendua.	asno).
Iluntasunari beldurra	Egoera dela eta, lo egin ezin denean.	Lotara joan aurretik kontatutako edozein ipuin.
Heriotzari eta eritasunari beldurra	Etorkizuna eta hau gainditzea azaltzen du.	Hiru lumak.

### TRANSMITITZEN DIREN BALOREAK:

BALOREAK ETA IRAKASKUNTZA	AZALPENA	ADIBIDEAK
Haurraren potentzialaren errekonozimendua	Bertute eta ezaugarriez hitz egiten da, konfiantza emanez.	Nabiza: gorputzak berak laguntza eskeintzen du.
Autoestimua	Ipuinak baliogabeko gertaerak gorai patzen ditu.	“El sastrecillo valiente”
Segurtasuna	Egoera gatazkatsuek beldurrei aurre egiteko laguntza jasotzen dute.	Aladino.
Ongia eta gaizkiaren arteko desberdintasunak	Heroiaren esfortzu eta bertutea beti saritua izango da, gaizkia, aldiz zigortua.	Ipuinen gehiengoa, Edurnezuri adibidez.
Fantasia eta errealitatearen arteko desberdintasuna	Istoriak ez dira egiazkoak baina errealitatea kontatzen dute.	Edozein ipuin.
Zoriontasuna	Amaiera zoriontsuaren bidez.	Ipuinen gehiengoa.

Bizitzaren esanahia □ esperantza	Bizitza momentu atsegin eta zailen arteko oreka da. Hobetzeko arriskatu beharra dago □ giza motibazioa.	Edozein ipuin
Motibazioa	Hasierako porrotaren aurrean ez da amore eman behar, aurrera jarraitu eta iraunkorra izan behar da.	Arrantzalea eta jenioa (el pescador y el genio).
Maitasuna	Bikotearekiko, senide eta lagunekiko.	Txanogorritxu (amonari estima).
Hautzaroko dependentziari aurre egitea	Independentzia eta heldutasunari ez zaio beldurra izan behar.	Hansel eta Gretel.
Esternalizazioa	Objektu batean unibertsalak diren barne sentimenduak agertzen dira, zeinekin haurra identifikatua sentitzen den.	<u>desioak</u> : maitagarriaren bidez. <u>Bulkada suntsitzailea</u> : sorgin gaiztoa. <u>beldurra</u> : gose den otsoa.
Disoziazioa	Bikote aurkarien bitartez aspektuen banaketa, sentimenduak bereizteko.	Bizkorra/ergela Polita/zatarra Langilea/nagia
Elkartasuna eta prestutasuna	Loturak indartzeko elkar laguntza.	Bi anaitxoak (los dos hermanitos).
Betebeharrak/lana	Errealitate printzipioaren aukeraketa (esfortzua) plazerraren ginetik (nagitasuna).	Hiru txerri txoak.

Aurreiritzien ezabapena	Kanpoko itxurak ez digu inolaz pertsonaren barnealdea erakusten.	Ederra eta piztia.
Barkatua izatea	Ekintza gaiztoen damua barkatua izan daiteke.	Gure andrearen alaba (Hija de nuestra señora).
Diruak ez du zorientasuna ematen	Sinpletasuna eta sentimendu onak garrantzitsuagoak dira.	Txiroa eta aberatsa.
“Dirugoseak zakua apurtzen du” (la avaricia rompe el saco)	Apaltasuna hobea da.	Arrantzalea eta bere emaztea (el pescador y su mujer).

Transmititzen diren rolek sexu bakoitzean modu desberdinean eragiten dute. Sexualitate berdinean oinarritzen den heziketa zailtzen dute rol hauek eredu eta estereotipoen bidez:

<b>MUTILAK</b>	<b>NESKAK</b>
Independenteak	Menpekoak
Ausartak eta ziurrak	Beldurtiak eta ez ziurrak
Erasokorrak	Gozoak
Infantilak	Helduak
Dinamikoak	Pasiboak
Zalapatariak	Arduratsuak eta lasaiak
Sormenezkoak eta naturalak	Zehatzak eta sentiberak
Erresistentzia adierazten dute	Etsikorrek eta menpekoak
Indarraren sinbolo	Ahuleziaren sinbolo
Gutxi definitutako aspektu afektiboak	Afektuzko aspektu oso markatuak

## IPUINEN FUNTZIO PEDAGOGIKOA

Ipuinaren funtzio nagusia eta baita literaturaren funtzio nagusia, istorioez, pertsonaiez, magiaz, gertaerez... gozatzea da.

Honez gain funtzio gehiago ere badauzka:

- Sozializazioa bultzatu, ideiak sorrarazi, sinismen eta giza balioak transmititu.
- Instituzioa edo eskaera sozialak legezatu.
- Rol eta funtzio sozialak legezatu.
- Jokabide ereduak eskaini.
- Sentimenduen ikuspuntutik identifikazio ereduak eskaini.

Gaur egun, sarritan, betiko ipuinei uko egiten zaie bertan agertzen diren balore eta biolentziagatik, honez gain agertzen den funtzioa hemen irudikatzen da. Haurrek, beren imajinazioa garatzen lagunduko dien ipuinak behar dituzte, pertsona orok irudiak behar dituen moduan, mundu ezagun zein ezezagunen irudiak, gertuko eta urruneko gauza harrigarriak.

Haurren imajinazioak indarra galtzen duen egunean, gizadia txirotu egingo da. Munduan gertatutako gauza handi guztiak lehenago norbaiten imajinazioan egon dira, eta etorkizuna neurri handi batean irakurtzen ikasten ari direnen esku dagoela esan daiteke. Abenturak ez dira imajinazioa eta sentimenduak garatzeko estimulu bakarra, hau da, liburu bat ona izan dadin beharrezko baldintza. Heroiaren gatazkek, gizakiaren eguneroko bizitzako egoera adierazten dute. Bertan, haurrek beren arazoan irtenbidea topa dezakete, beraz, istorio zaharrak denboraz kanpokoak direla esan daiteke, hau da, haurrak eta hauen beharrak dira denboraren poderioz eta berrikuntzak jasanez aldatzen ez direnak. Adibidez, Harry Potter eta literaturako beste

klasiko batzuk, zeinak irakurleen identifikapenerako espazio bat zabaltzen duten, argi azaltzen dute.

## **IPUINAK HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN: ULERMENA ETA ERALDAKETA**

Betiko ipuinek kultura arteko ikaskuntzarako abiapuntu emankor bat eskaintzen dute. Kulturartekotasuna helburu duen didaktika batean ipuinek hizkuntzaren erabilpenerako oinarria sortzen dute. Kultura anitzeko taldeetan nazioko ipuinen bidez, elkar lotura eta sustraiak topatzeko bide bikaina dira.

Ipuinak herrialde bakoitzeko altxor kulturalak direla esan daiteke: iragana eta orainaldiaren arteko zubiak dira, gertuko eta urruneko munduen artean, fantasia eta errealitatearen artean, eguneroko bizitzarekin harremandutako arazoei irtenbidea eskaintzen dute, haurren garapen intelektualean positibotzat hartzen dira hizkuntzaren eskuraketa eta kulturaren ikaskuntzaren konbinaketa sustatzen baitute. Horrela, kultura desberdinetako ipuinak, helburu linguistiko zein kulturalak indartu nahi diren ipuin altxorak dira.

Ipuinetan ohikoak diren gaiak lantzen dira: txiroa eta aberatsa, ongia eta gaizkia, zorte ona zein txarra, beldurra eta ausardia, babes gabezia, lan zaletasuna eta nagitasuna, inteligentzia eta ergeltasuna, justizia eta injustizia, ardura eta egoismoa. Fantasiako izakiek erdiko papera izan ohi dute: maitagarriak, magoak eta dragoiak izaten dira. Estereotipatutako egitura izaten dute: hasiera, arazoa, bidaia, eginbeharra, topaketak, irtenbidea eta amaiera. Toki arruntetan topatzen dira: baso, mendi, herri edo etxeetan.

Hurrek ipuinak behar dituzte, eta beraien gustukoak dira, ipuinen artean haziko dira eta ipuinak kontatzea belaunaldiz belaunaldi kultura transmititzea

dela konturatuko dira. Beraien interpretazioek heziketarako garrantzitsuak bihurtzen dituzte, autoerreflexiorako bultzada izan daitekeelarik, eta baita bestearekiko gogoeta ere.

## **TELEBISTA    ETA    FILMEAK    vs.    LITERATURA KLASIKOA:**

Jakina da telebista pixkanaka irakurketa ordezkatzeko joan dela, bere adierazkortasun, koloretasun, irudi, soinu eta erosotasunagatik: guzti horrek berrikuntzekiko joera dakar, errazena eta erosoena izateagatik. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela esaten da, eta gainera, bizitasuna badu, askoz hobe.

Iraganetik orainaldira pasabidea:

Antzina, maitagarrien ipuinak kontatzea bizi modu bat zen. Familia osoa mahai baten inguruan esertzen zen istorio sinesgaitzak entzuteko, izan ere, ez zegoen beste denbora pasarik. Honekin, familia harremanak estutzen ziren eta haurrei beraiek bakarrik entretenitzen erakusten ziren.

Hala ere, gaur egun errazagoa da sukaldeko mahaian telebista bat topatzea ipuin kontalari bat baino. Gainera, narratzaile bat prest egongo balitz ere denbora faltako litzake. Teknologiak ohiturak aldatu ditu. Horrela, oraingo mezu azkar eta iragankorrak garaiko sinbolo adierazkorrean bihurtzen gaitu, orainaldian finkatua eta iraganean geroz eta sustrai gutxiago dituen.

Adibide gisa: espainiar estatuko haurrek egunean batz besteko 3 ordu eta 38 minutu telebista ikusten dituzte, haur programa gutxi egonez, eta ondorioz haurrak "heldu" bilakatu.

Etorkizuna:

Baliteke modernotasunaren amaierak ipuin klasikoaren berreraikuntza alde batera uztea eta irakurketa berriei tokia uztea. Baina, garrantzitsuena literatura ez desagertzea da.

Gaur egun:

Psikologiaren alorrean ere ipuinek berebiziko garrantzia dute:

- “Mari errauskin edo Printzesaren sindromea”: 30 eta 40 urte bitarteko egungo emakumeak askoz ere urte gutxiago dituztelako planta egin nahi dutenean gertatzen da. Izan ere, ez baitute zorientasuna errealizaio pertsonalarekin lotzen, beren printze urdina topatzearekin baizik.
  - Honen baliokide maskulinoa “Peter Pan-en sindromea” litzateke: hazteari eta independente izateari kontra egiten dioten banakoei deritze. Gurasoen etxea bikotez bikoteko joateko uzten dute. Aldiz, emakumeen kasuan, ipuinetan bezala izatea espero dute: beren bizitzari printze urdinak zentzua ematea. Rol honen atzean autoestimua falta eta heldugabetasun emozionala topa ditzakegu.
- Parisen, baliabide psikologiko berri bat indartzen ari da: “Ipuinen tailerra”: banakoaren esploraziorako ipuin klasikoen irakurketa eta interpretazioa. Teoria honen esanetan, ipuinak hiru funtzio nagusi azaltzen ditu: heroia, erregea eta maitagarria.

## LENGOIA SINBOLIKOA:

Mintzaira sinbolikoa ipuinen sinpletasunaren atzean ezkutatzen dena da. Giza inkontzientera zuzendutako irudi edo sinboloen bitartez arazo, aldi, edota ekintzak azaltzeko erabiltzen da, aukera eta alternatiba desberdinak iradokiz. Hizkuntza espezifiko honi esker, haurrek beren asaldura eta nahiak adierazita ikusten dituzte.



Ipuinak haurraren arimarentzako aberasgarriak dira, beren fantasia estimulatzeaz gain funtzio terapeutikoa ere betetzen dutelako. Alde batetik beren esperientzia, sentimendu eta pentsamenduak adierazten dituztelako, eta bestetik, lengoia sinbolikoaren bitartez lotura emozionalei aurre egiten laguntzen dutelako.

Haurrak ipuin bat entzun edo irakurtzen duenean, bere fantasia martxan jartzen du eta kasurik hoberenean pertsonaia nagusiarekin identifikatzea lortzen du, horrela bere barne gatazkei aurre eginez.

Ipuinetan haurrak bere bizitzarekin identifika ditzan sinbolo anitz aurkitzen ditugu: (ipuinaren arabera desberdinak)

<b>GAUZA SINBOLIZATUA (ipuinean erreala)</b>	<b>IPUINAREN SINBOLOA (sinbolizatzen duena)</b>	<b>ADIBIDEA</b>
Ehiztaria	Ordezko aita, babeslea, indartsua eta idealizatua. Gizonaren errepresio bortitza.	Txanogorritxu.
Gurasoen ausentzia	Hazkuntzako krisietan laguntzeko gurasoen ezgaitasuna.	Hansel eta Gretel.
Aurrekariak (predecesores)	Heroiaren enkarnazio aurrekari eta heldugabeak.	Loti ederrarengana iristen saiatzen hiltzen diren printzeak.
Maitagarri laguntzailea (hada auxiliadora)	Ama idealizatua.	Mari errauskin.
Amandre maitagarria (hada madrina)	Norberaren izate femeninoa.	Mari errauskin.
	Ama ona vs. Gaiztoa.	

Sorgina	Emakumeen sexualitateari beldur maskulinoa.	Hansel eta Gretel.
Sorginaren erratza	Etxeko lanak eta ezaugarri sexuala (eseritzeko modua).	Hansel eta Gretel.
Sutondoa	Ama.	Mari errauskin.
Barraskilo itxurako eskailera. Gela itxia. Giltza bat sartzea.	Sexu esperientziak. Emakumeen organo sexualak. Harreman sexualak.	Loti ederra.
Harrizko gaztelua	Sendotasun eta bertikaltasuna. Autoritarismoa. Zerua/infernua.	Ederra eta piztia.
Basapiztia	Konpondu gabeko gatazkak. Bere laguntzak indarra eta aberastasuna ematen ditu.	Txanogorritxu.
Hegaztiak	Askatasuna eta laguntza.	Eduenezuri.
Erlea	Lana eta gozotasuna.	Mila gau eta bat gehiago.
Sugegorria/ elefantea/ zaldia	Maskulinitatea.	Mila gau eta bat gehiago.
Sugea	Sexu gosea eta debekua.	Biblia (paradisuko sugeak deabrua adierazten du)
Zuhaitza	Bizitza, banakoaren hazkuntza fisikoa zein psikologikoa.	Mari errauskin.
	Garapen sexuala.	

Lorea	Lora moztua: birjintasun galtze aurreratua.	Ederra eta piztia.
Larrosa	Maitasuna, amodio eta plazerra.	Ederra eta piztia.
Basoa (abandonatutako haurren babeslekua)	Seme-alabak independizatzeko gurasoen gogoa.  Haurrak independentziaren aurrean adierazten duen belur edo irrika.  Haurraren inkontzientea: identitatearen bilaketa.	Hansel eta Gretel.
Lorategia	Locus amoenus. Maitaleen elkartzea eta sentimenduen asaldura.	Ederra eta piztia.

Senide baten heriotza	Heroiaren "laranja erdia"ren bilaketa.	Eduinezuri.
Sagarra	Maitasuna eta ezkontza.  Arriskua eta pekatua.	Biblia. Adan eta Evaren pasarteak.
Objektu magikoa	Salbamena/ nahi dena bilatzeko protagonistaren laguntza.	Aladinoren lanpara.
Ispilu magikoa	Nartzisismoa.	Eduinezuri.
Zapata txikia	Feminitatea, birjintasunaren galera eta ezkontza ospakizuna.	Mari errauskin.
Beirazko hilkutxa	Arimaren heriotza (hazteko nahikoa denbora).	Eduinezuri.
Goruaren sastada (pinchazo con una rueca)	Hilerokoa.	Loti ederra.
Errautsak	Mina, tristura, degradazioa, gehiegikeria, mespretxua eta zikinkeria.	Mari errauskin.
Zikinkeria	Askatasuna, plazerra eta erruduntasuna.	Mari errauskin.
Gorria (kolorea)	Hilerokoa, pubertaroa eta heldutasun sexuala.	Txanogorritxu.
Txuria (kolorea)	Gardentasuna (pureza).	

Gorria, beltza eta txuria (koloreak)	Edertasuna.	Edurnezuri (ile beltza, masail gorriak eta azal txuria).
---	-------------	--

## **SEXU ETA GENERO IDENTITATEAN ERAGINA DUTEN** **FUNTZIOAK**

### **SARRERA**

Ipuinen sexuari buruzko galdera asko egin daitezke: *Zergatik ez daude ez epotx emakume eta ezta gizon maitagarri bat? Zergatik ipuinetan emakumeek beti itxaron behar dute gizon batek salbatu eta berarekin ezkondu dadin? Zergatik dira gizonak beti egoera arriskutsuak gainditu behar dituztenak eta emakumeak etxean zain gelditu pasiboki itxaroten?*

Gizonek ipuinetan duten arazo handiena beraien etsaiak gainditzea den bitartean (gizonen etsaiak beti dira gizakiak ez diren izakiak) emakumeek beraien artean borrokatu behar dute: sexu berdineko antagonista, hau da, adibidez amaordea (kontrako baina aldi berean irudi berdina duen izakia). Gizonentzat etsaiak beti dira beste izakiak emakumeentzat emakume berberak.

Tradiziozko ipuinek askotan estereotipo sexista ugari aurkezten dituzte, mendebaldeko kultura eta gizartea mendeetan zehar beti izan da diskriminatzailea. Ipuinak oso diberdigarriak dira eta balore asko transmititzen dute baina hauetan agertzen diren aurreiritziak ikusten jakin behar da gure gizarteko heziketa eta honen bitartez baloreak hobetzen joateko. Liburuak balore etiko eta estetikoak transmititzen ditu, ez bakarrik ezagutza, errealitatea ikusteko era bat erakusten baitigu.

Ipuinetan, haurrentzako egokiak direla uste den balore, jarrera, hierarkia eta sinesmenak agertzen dira. Tradiziozko ipuinak aurreiritzi sozialak transmititu eta mantentzeko balio izan dute, hauetan agertzen diren pertsonaiak haurrek jarraitzen baitituzte.

## **SEXU ETA GENERO IDENTITATEAN ERAGINA DUTEN FUNTZIOAK**

Ipuinen bitartez, sexualitatea eta genero inguruko hainbat eta hainbat funtzio transmititzen dira:

1.- Gizarteratze funtzioa: gure gizartean ematen diren rol eta arauak irakasten dira.

2.- Irudiaren eragina identifikazio emozional inkontziente moduan: ipuinetan agertzen diren irudiek duten funtzioetako bat, haurrak emozionalki eta konturatu gabe egiten duten identifikazioan datza.

3.- Hizkuntzaren erabilera boterezko harremanak sortu eta edo erreproduzitzeko baliabide bezala.

Hiru elementuak batuta: edukia, hizkuntza eta irudiak, produktu boteretsu bat lortzen dugu: **IPUINAK**.

## **SEXU ROLAK**

Ipuinak, pedagogikoki oso material garrantzitsua da identifikazio, sexu rolen eta sexuen arteko harremanen ikasketa prozesuan. Oraindik irakurtzen ez dakiten haurrek luzaro begiratzen eta ikusten dituzten ipuinetako irudiak estereotipo, balore eta pentsamoldeak transmititzen dituzte.

1998an egindako ikerketa batek zera ondorioztatzen zuten:

**FAMILIAK**: Orokorrean bi guraso dituzte (aita eta ama) eta seme-alabak ere bi izaten dira.

1.- Aitaren papera: Etxetik kanpoko lana egiten du eta deskantsatu egiten du. Fisikoki gutxitan agertzen da, oso argia da eta janaria mahaian eserita itxaroten du.

2.- Amaren papera: Etxeko lan eta seme-alaben zaintzaz arduratzen da, oso adeitsua izaten da, ez du janzkera deigarria izaten eta bere harreman sozialak familiaren barnean geratzen dira.

Guraso bakarreko familiak agertzen direnean, orokorrean ama izaten da eta ez da aitari buruzko azalpenik ematen.

Ama ez dagoenean, amaorde batekin ordezkatu ohi da eta hau oso gaiztoa izan ohi da.

Ikusten dugunez, gurasoak egiten duten papera oso tradizionala da.

Lanari dagokionez, gizonenak irabazi ekonomikoa du eta sozialki emakumearena baino askoz hobeto ikusia dago. Emakumeena doanekoa izan ohi da etxeko lanak egiten baititu eta hauek ez dute balore ekonomikorik ezta sozialik ere.

Etxetik kanpoko munduan, gizonezko pertsonaiak beti dira emakumezkoenak baino askoz ere ugariagoak eta orokorrean emakumeak agertzen direnean hurrekin egon ohi dira.

### ***GIZONEZKOAK IPUINETAN:***

Gizonek, beti egiten dute borroka, beste pertsona (orokorrean emakumeak) edo animaliak salbatzen dituzte, erreskatatzen dute, bidaiatu egiten dute... eta ausartak, erabakiorrak eta seguruak izan ohi dira.

Hala ere, familia barnean oso menpekoak izaten dira, beti behar dute emakumeren bat. Adibidez: erregea alargun geratzean emakume gaizto batekin ezkontzen da.

Gizonezko pertsonaia magikoaren (magoa) boterea bere jakindurian datza.

Gizonezko pertsonaiaren gaiztakeria bere boterean (otsoa) edo zikoizkerian (lapurra) datza. Gizon gaiztoak emakume gaiztoak baino gaiztoagoak izan ohi dira. Emakumeak azken finean beti agertzen dira amatasunari harremanduta, beraz, beti dute alde solidarioa.



Gizonak orokorrean beraien ausardia edo koldarkeria, maltzurkeria, oldarkortasuna, eraginkortasuna, egiten duten lana edo duten botere egoerekin deskribatzen dira. Eta boterea izaten dute: erregea, printze... paperak betetzen dituzte ipuinetan.

Amaiera "onenak" printze edo printzesarekin ezkondu eta errege edo erregina izatean datza, boterearen sinbolo.

Ipuinetan agertzen diren **gizonezko pertsonaiak** beti emakumeen kontrako papera egiten dute batez ere familia barnean. Familia alde batera uzten dute abentura bila ateratzeko. Bi aurpegi izan ditzakete: ausarta (kanpora begira) eta sentikorra (eremu pribatuan). Honako hauek izan oi dira:

#### ***EHIZTARIA:***

Abere arriskutsu eta gaiztoen aurrean askatasuna eta babes ematen duen maskulinitate sinboloa da. Maitagarrien ipuinak asmatu ziren momentuko pertsonaia da: Ehizak garai horretan lehentasun aristokratikoa zuen, beraz ehiztariaren papera aita indartsu eta babes emaile bezala ikus daiteke.

Mutiko asko berarekin identifikatzen dira, bere indarra eta ausardia atsegin bait dute. Neskatxa askok berriz, ordezeko aita bezala ikusten dute, amaordea desobeditzen duena bere nahiak betetzeko.

#### ***PRINTZEA:***

Orokorrean ipuin bukaeran agertu ohi da, hainbat eta hainbat arrisku igaro eta bere bizia arriskatu ondoren hasieratik maite duen emakumea aurkitzean. Aurkitzen duenean, musukatu eta bere erreinura eramaten du erregina izan eta zoriontsu bizi daitezen.

Berari buruz dakigun gauza bakarra, maiteminduta dagoela eta maila sozial altukoa dela da: errege-erreginen semea da eta etorkizunean errege izango da. Horregatik orokorrean ez da ipuineko heroia izaten. Pertsonaia hauek oso egoera onean jaiotzen dira (indartsuak dira, ausartak, politikak, onak

eta aberatsak) eta ipuinetako pertsonaia nagusiak beti egoera zaila izaten duten pertsonak izan ohi dira.

***Printze urdinaren mitoa:***

Bere funtzioa, laguntza behar duen dama erreskatatzean datza. Beste batzuetan, maldizio baten biktima izaten da eta igel bihurtzen dute. Maldizio honetatik askatzeko, printzesa baten muxua behar izaten du.

***ERREGEA:***

Oso paper pasiboa izaten du, gutxitan agertzen da. Koroia, kapa eta ohizko bitxiekin jantzi ohi da. Bi paper bete ditzake: aita izugarri ona, ipuin hasieran hiltzen denean. Edo bere emazte erregina denaren ideiei aurre ez egiteagatik ezgai bezala.

***MAGOA:***

Laguntza magikoaren sinboloa da. Historian zehar aldatzen joan da: apaiz izatetik magia egiten hasi zen, igarle eta astrologoa.

Justu sorginaren kontrakoa da, oso ezaugarri desberdinekin: Pertsona ona da, besteak berari laguntza eskatzera joaten dira. Beraien irudia, argia baina baldarra izaten da. Bizar zuri eta luze bat izaten dute, ile gutxi eta zuria baita ere.

### **EMAKUMEZKOAK IPUINETAN:**

Emakumeak beti daude zain, josi, garbitu, negar eta abar egiten.

Botere magikoa duten emakumeen ezaugarriak (maitagarriak), norbaitek edo zerbaitek eman dien magia horretan datza, baina ez bere argitasunean.

Emakumeen gaiztakeria jeloskortasuna eta itsuskerian datza.

Emakumeak eta neskatxoak, politak, goxoak, hauskorrak, behartsuak, zintzoak, ez oso argiak, intuiziozkoak eta bar bezala deskribatzen dituzte.

Amaiera "onenak" printze edo printzesarekin ezkondu eta errege edo erregina izatean datza, boterearen sinbolo.

Ipuinetan, 2 emakume mota agertu ohi dira: emakume ona eta emakume gaiztoa.

**Emakume ona:** hauskorrak, goxoak, amatiar eta politak izaten dira. Garbiak eta langileak ere (etxeko lanetan, noski). Arrakasta duen eredu bezala agertzen da, kontutan izanik arrakasta printzearekin ezkontzea dela. Askotan, gizonak heriotzetik, bahiketetatik eta bar salbatu ditzaten behar izaten dute.

**Emakume gaiztoa:** jakin nahiak eta argiak izan ohi dira, baina beraien argitasuna emozionala da eta manipulatzeko erabiltzen dute. Sorginak eta amaordeak izaten dira eta beraien botereak ez dira zientifikoak, esoterikoak baizik. Ausartak badira ipuinean zehar zigor bat jasotzen dute. Handinahikeria izaten dute eta askotan zigortuak izaten dira nahi horiek edukitzeagatik.

Orokorrean, ipuinen batean emakumeak badu boterea, botere hau ez da berak bere bidetatik lortutakoa, hau da, emakume izateagatik dituenak dira (edertasuna, garbitasuna, hauskortasuna...) edo trikimailuen bidez lortutakoak dira (sorginen boterea eta amaordea).

Ipuinetan agertzen diren **emakumezko pertsonaiak** oso paper desberdinak izan ditzakete. Ile hori eta soltea eduki dezake (erotismoaren sinbolo) eta azal zuria (ez du zelaietan lanik egiten) edo ile beltza izan dezake, azal zuria eta musugorria.

Bere jakin minak tentaziora eramaten ditu (Biblian Adan eta Evaren antzera). Pertsonaiak honako hauek izan ohi dira:

*PRINTZESA-HEROIA:*

Oso ederrak eta eskuzabalak izan ohi dira, bere irudi fisikoak nortasuna islatzen duelarik.

Ez badute heroi papera egiten, pasiboak izaten dira, salbatuak izaten dira eta beraiek dira saria (ez bere edertasuna baizik eta ezkontzarako giltza dira).

Heroiak badira, lokartu eta printzearen zain egon daitezke (Edurnezuriren antzera) era pasibo batean. Ekimena izan dezakete edo beraien maitatuak identifika ditzan bere identitateagatik borrokatu dezakete.

*MAITAGARRIA:*

Botere magikoak dituzte. Senarra ez duten emakume helduak dira, animaliak dituzte eta beraien makilatxoak. Zailtasunak gainditzen laguntzen dute. Emakumeen alde positiboak irudikatzen dituzte. Babesle eta amatiarrak izan ohi dira.

*AMAORDEA:*

Heroiaren kontrakoa izaten da. Oso ederra izaten da baina honek ez du bere nortasunarekin harremanik. Orokorrean hildako ama ordezkaten du, alargunarekin ezkondu ohi da, hau baita laster hiltzen da eta berea den guztia oinordetzen du. Alabaordearen edertasun eta gaztetasunari dion inbidiaren ondorioz, bere alabak ikustarazi eta alabaordea mintzen saiatzen da.

Amaordearen irudiak bere oinarri historikoa du: "Peste" zegoen garian seme-alabak zituzten pertsona asko hil ziren, emakume asko erditzean hiltzen ziren eta bigarren ezkontza asko izan ziren.

**AIZPAORDEAK:**

Beraien material eta estatus sozialaren desioa zigortua izaten da sentimendu onak (langile izatea, umila izatea...) oztopatzeagatik. Itsusiak, azalekoak eta mainatiak izaten dira.

**SORGINA:**

Maitagarrien kontrakoa bezala aurkezten da. Zaharrak, txiroak, argalak (esterilitatearen sinbolo) eta deformeak izaten dira, sudurrean garatxoak dutela. Erabiltzen duen erratza etxeko lanetako sinbolo eta sinbolo sexuala da.

Bere frustrazioa (itsusia izateagatik, eta sozialki balorerik ez izateagatik) magiarekin estaltzen dut. Irabazia izatean, zigorra jasotzen du.

**ERREGINA:**

Oso paper pasiboa edukitzen du. Orokorrean hasieran hiltzen da edo amaierako ezkontzagatik pozten da.

## **IPUINEN AZTERKETA**

Ipuinak genero ikuspuntutik aztertzeko honako pausoak jarraitu daitezke:

- 1.- Emakume eta gizon kopurua eta izen propioak nortzuk dituzten aztertu.
- 2.- Zein den protagonista.
- 3.- Nork hasten dituen elkarrizketak.
- 3.- Nola deskribatzen diren protagonistaren ezaugarriak.
- 4.- Bere ezaugarri kognitibo eta emozionalak.
- 5.- Zer egiten duten (lana...) eta egiten dutena ordainduta dagoen ala ez.
- 6.- Zer esaten duten.
- 7.- Zer gertatzen den.

8.- Zein paper betetzen duten ipuinaren amaieran.

9.- Irudiak edo marrazkiak aztertu: nola doazen jantzita, zer egiten ari diren...

Ezaugarri hauek aztertuz, ipuina sexista den ala ez jakin dezakegu eta honen ondorioz hau aldatu.

### **IPUINEN SORRERA**

Ipuinak sortu edo sortuta daudenak aldatzeko, honako ariketak egin daitezke:

- 1.- Istorioak beste amaiera batekin bukatu.
- 2.- Tradiziozko ipuinen bertsio ez sexista bat asmatu.
- 3.- Pertsonaiak aldatu, generoa, ezaugarriak eta rolak.
- 4.- Ipuineko zati bati alde sexista kenduz berridatzi edo antzeztu.
- 5.- Zatiak antzeztu gizonen papera emakumeei emanaz eta emakumeena gizonei emanaz.

## BIBLIOGRAFIA:

Ipuin tradizionalak aztertzen dituzten idazle, artikulu edo liburuak...

- *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Bruno Bettelheim. Biblioteca de Bolsillo, 1999/2010
- *La sirenita, aventura en estado puro*. Blanca Álvarez. Erreferentzia: CLIJ. 0214-4123N. 217 (jul.-ag. 2008), p. 44-49 (DK)105383
- *Cenicienta : triunfo y advertencia del amor* . Blanca Álvarez. Erreferentzia: CLIJ. 0214-4123 N. 216 (jun. 2008), p. 57-60 (DK)105383
- *Blancanieves : el camino del horror en busca del destino*. Blanca Álvarez. Erreferentzia: CLIJ. 0214-4123 N. 215 (may. 2008), p.18-22 (DK)105383
- *La fijación del estar femenino : La Bella Durmiente* . Blanca Álvarez. Erreferentzia: CLIJ. 0214-4123 N. 211 (ene. 2008), p. 17-20 (DK)105383
- *Caperucita Roja : la búsqueda de la identidad*. Blanca Álvarez. Erreferentzia: CLIJ.0214-4123 N. 204 (mayo 2007), p. 24-27 (DK)105383
- *La Bella y la Bestia : publicidad para una sumisión*. Blanca Álvarez. Erreferentzia: CLIJ. 0214-4123 N. 202 (mar. 2007), p. 31-36 (DK)105383

Rol generoak, sexismoa...

- *Sexismo en la literatura infantil*. Montserrat Vintró, María Neus. Erreferentzia: CLIJ.0214-4123 N. 217 (jul.-ag. 2008), p. 21-27 (DK)105383
- *Ipuinak ez sexistak izateko gida*. koordinatzailea, Bea Medrano; ilustrazioak Leire Medrano. Precede al tít.: Gomendio eta adibide praktikoak. Editorial: Bilbo : UrtxintxaEskola ; Bilbo : Emaisia Elkarte, D.L. 2006.
- *Ipuinak geletan : ametsei ateak zabaltzen*. Bea Medrano. Contiene: Hik hasi. 1135-4690 N. 133 (2008ko abendua), 28-29 o. (DK)105391

Ipuinak...

- Ipurditxo bihurritxo*. Jose Luis Cortáez. Marrazkilaria: Avi. Argitaletxea: S. M. 5-8 urtekoentzat. Liburu honetan aitak zein amak zaintzen dituzte haurrak (nahiz eta amak gehiago). Harreman onak igartzen dira.

-*Zergatik*. Gabriela Keselman. Marrazkilariak: Pep Brocal eta Marc Brocal.  
Argitaletxea: Elkar. 5-8 urtekoentzat.

-*Aita despistatu bat*. Josep Gregori. Marrazkilariak: Rosa Anna Crespo eta Enric Soler. Argitaletxea: Elkar. 5-8 urtekoentzat.

Bi liburu hauetan aita eta alabaren arteko harremanak oso erosoak dira eta aitek denbora asko igarotzen dute alabekin hitz egiten. (Semearekiko harremana ikustea gustatuko litzaiguke).

- *Mustloa naiz*. Patxi Zubizarreta. Marrazkilaria: Mikel Valverde. Argitaletxea: Erein. 5-8 urtekoentzat. Liburu honetan aurkezten zaigun familian rolak ez daude finkaturik eta bakoitzak edozer gauza egiten du.

-*Xola*. Idazlea Bernardo Atxaga. Marrazkilaria: Mikel Valverde. Argitaletxea: Erein. 7-9 urtekoentzat. Xolaren istorioetan gizonak sukaldeko lanetan trebeak direla ikusten da.

-*Amama maitea, zure Susi*. Christine NÄ¶stlinger. Argitaletxea: S.M. 7-9 urtekoentzat.  
Eskutitzen bidez harreman onak eta aipagarriak islatzen dira liburu honetan.

-*Benek Anna maite du*. Peter Hartling. Argitaletxea: Alfaguara-Zubia. 12-14 urtekoentzat. Liburu honek sentimenduez lotsarik gabe hitz egiten digu.

- *Neskatxak*. Agustin Fernandez Paz. Argitaletxea: Erein. 12-14 urtekoentzat. 12 urteko neskek erabakiak har ditzaketela azaltzen digu honek.

- *Enekoren soineko arrosa*. Anne Fine ; itzulpena, Agurtzane Ortiz de Landaluze ; irudiak, Philippe Dupasquier. Alfaguara Zubia Haur-Literatura. Morea 9-10 urtetaik aurrera. Leioa ; Madrid : Alfaguara : Zubia, 1995.

- *Markos kantinera*. Patxi Zubizarreta ; marrazkilaria, Mikel Valverde. 2. Argitaraldia. Donostia : Elkarlanean, L.G. 2008. 7-8 urtetatik aurrera.

- *Santas modernas y doncellas heroicas : los cuentos de Ana Rossetti como ejemplos de literatura co-educativa*. Patricia Bastida. Erreferentzia: Platero : 3 revista de literatura infantil-juvenil Vol/Nr 127, Paginas 17-22, Año feb. 2002

- *Cuentos infantiles políticamente correctos*. James Finn Garner. Circe, 2008.

- *Mariziprztinek ez du zorioneko galeperrik nahi*. Nunila López Salamero eta Myriam Cameros Sierra. Txalaparta, 2009. Nunila-myriam.blogspot.com

- 'Txanogorritxu eta otso beltzu'. Kukuxumuxu. Ttartalo.



- Literatura infantil y juvenil no sexista : listado. Instituto Asturiano de la Mujer. Contiene:: Platero : revista de literatura infantil-juvenil Vol/Nr 127, Paginas 24-30, Año feb. 2002 (DK)105411

- *Protagonistas de rosa y azul: 100 libros para una educación no sexista.* María Guillermo Diaz, dir; Alonso Palacios, kol; Aurora Gil, kol. Editorial: Murcia : Comunidad de Murcia, Dirección General de la Mujer, D.L. 1992.

### Ipuinak sortzeko edo berridazteko...

- *Hacer escribir a los niños : la metodología del taller de escritura y consignas prácticas para incentivar el mundo creativo y novelesco de los niños.* Lola S. Morilla, Silvia Adela Kohan. Serie: Colección escritura creativa (Grafein). Editorial: Barcelona : Grafein, D.L. 1999.

- *La composición escrita (de 3 a 16 años).* Marisol Anguita. Serie: Claves para la innovación educativa (Graó) ; 28. Editorial: Barcelona : Graó, 2004.

- *Programa de animación a la lectura y escritura.* Daniel Martín Castellano ; ilustraciones, Inma Serrano. Editorial: Archidona (Málaga): Aljibe, D.L. 2005.

- *La página escrita : Cómo escribir, crear personajes, hacer un guión, buscar la técnica más adecuada para cada relato (...).* Jordi Sierra I Fabra. Serie: Materiales (sm) Editorial: Boadilla del Monte (Madrid) : SM, D.L. 2006

### Web-orri batzuk:

- <http://www.solohijos.com/cuentos/html/home.php>

(ipuinak eta nola hezi ipuinekin)

- [http://personal.redestb.es/jesusrom/cuentos/cuentos\\_frame.html](http://personal.redestb.es/jesusrom/cuentos/cuentos_frame.html)

(ipuin laburrak)

- <http://www.cuentilandia.es/>

(haur eta helduentzako ipuinak)

- <http://www.leemeuncuento.com.ar/>

(adin guztietarako ipuinak)

- <http://www.galtzagorri.org/>

(galtzagorri elkartea)

- <http://www.imaginaría.com.ar/>

(haur eta gazteen literatura aldizkaria)

- <http://www.sedoparking.com/librodot.es>

(doako liburuak)

### **Kredituak eta baimenak.**

**Egilea:** [Eider Goiburu](#), Garazi Urdangarin eta Oihane Ugarteburu.

**Data:** 2011ko uztaila

**Baimena:** Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)

Oharra: material hau ikastaroko ikasleen esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.